

# **GOBERNU BILERA**

Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak

## **CONSEJO DE GOBIERNO**

Dossier de Prensa  
Acuerdos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2019ko apirilak 16**

**Vitoria-Gasteiz, 16 de abril de 2019**

## Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

### JAURLARITZAK 55 MILIOIKO KREDITUAK BAIMENDU DITU LOIOLAKO ERIBERETAKO LOTUNERAKO ETA BEA AUTOBUS ELEKTRIKO ADIMENTSUA HEDATZEKO

Eusko Jaurlaritzak baimendu egin du azpiegitura proiektuak hobetu eta ahalbideratzeko eta Euskadiko Azpiegitura eta Burdinbide Garraioa kudeatzeko konpromiso-kredituak sortzea, guztira 54.650.000 euroko kopuruaz. Zuzkidura horiek 2020, 2021 eta 2022 ekitaldietan banatzen dira, 8.050.000, 26.800.000 eta 19.800.000 eurotan, hurrenez hurren, ondorengo xehetasunaren arabera:

	2020	2021	2022	GUZTIRA
Donostiako Autobus Elektriko Adimentsua finantzatzeko hitzarmena	4.400.000	13.000.000	8.000.000	25.400.000
Leioako Autobus Elektriko Adimentsua finantzatzeko hitzarmena	2.950.000	8.500.000	8.500.000	19.950.000
Loiolako Erriberetako lotunerako hitzarmena	700.000	5.300.000	3.300.000	9.300.000
<b>GUZTIRA</b>	<b>8.050.000</b>	<b>26.800.000</b>	<b>19.800.000</b>	<b>54.650.000</b>

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak hala proposatuta, gaurko Kontseiluak baimena eman du konpromiso-kredituen egoera handitzea baimentzeko; era horretan, handitu egin du lau gai garrantzitsutarako baimenduen diru kopurua, bertan nabarmenduz Loiolako Erriberetako Lotunea eta BEA Autobus Elektriko Adimentsua beste udalerrri batzuetara hedatzea (adibidez, Donostia eta Leioara).

### Euskotren eta Renferen arteko Loiolako lotura

Gaur erdietsitako akordioan, 9.600.000 euro baliatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Estatuko Administrazio Orokorraren, ADIFen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean aurreikusitako finantzaketa-hitzarmenerako, Loiolako Erriberetan lotunea ezartzeko.

Proiektu estrategiko bat da eta, haren bitartez, Gipuzkoako lurraldea egituratzen duten bi burdinbide nagusiak konektatuta geratzeko dira: Euskotrenek ustiatutako ETS sarea (12 milioi pertsona erabiltzaile baino gehiago) eta Renfek ustiatutako ADIF sarea (7 milioi pertsona erabiltzaile). Geltoki berri bat sortuko dugu hor, bi lineen arteko elkartrukea egiteko. Pertsona erabiltzaileek geltokitik atera gabe egin ahal izango dute tren-aldaketa.

Hitzarmenaren kostuaren banaketa, urteka, ondorengo eran geratuko litzateke, nahiz eta 2019. ekitaldirako luzatutako aurrekontuan ez den konpromiso-krediturik kontuan hartzen:

2019	2020	2021	2022	GUZTIRA
300.000	700.000	5.300.000	3.300.000	9.600.000

### **BEA Donostia eta Leioara hedatu**

BEA Vitoria-Gasteizen ezartzearen lehen esperientziaren ondoren, Eusko Jaurlaritzak sistema udalerrri berrietara hedatzekoa aukera aztertzen ari da. Donostia hirian Autobus Elektriko Adimentsuaren egitasmoa prestatu eta, gero, hura ezartzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren artean izenpetzea aurreikusi den finantzaketa-hitzarmenerako, 26 milioi euro bideratu dira guztira, egitasmoaren % 65 guztira; gainerako % 35a Udalak eta Aldundiak finantzatuko dute erdibana.

Dbuseko 28. Linea osoki elektrifikatu nahi dugu, hura baita hiriko erabiliena. Bertan, asmoa da sistema adimentsu bat ezartzea, linean bizkor kargatzen dena eta, gauez, berriz, hori kotxe-tokian egitea. BEArako, errei lehenetsi bat jartzea da asmoa, baita lehentasuna ere semaforoetan, eta geltokiko ticketing-edo balioztatze-sistema, erabiltzaileen sartu-irtenak arintzeko.

Hitzarmenaren kostuaren banaketa, urteka, ondorengo eran geratuko litzateke:

2019	2020	2021	2022	GUZTIRA
600.000	4.400.000	13.000.000	8.000.000	26.000.000

Bestetik, Leioan Leioako Metro geltokia Unibertsitateko campusarekin uztartuko duen Autobus Elektriko Adimentsua ezartzeko aurreikusitako finantzaketa-hitzarmenerako, 20.450.000 euro esleitu dira, ondorengo eran banatuko direnak:

2019	2020	2021	2022	GUZTIRA
500.000	2.950.000	8.500.000	8.500.000	20.450.000

### **Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak**

## 28 MILIOI EURO ETEETAN INBERTSIO BERRIAK FINANTZATZEKO ETA ENPLEGU BERRIA SORTZEKO

- **GAUZATU-Industria programak inbertsio berritzaileetarako eta teknologikoetarako aurrerakin itzulgarriak eskaintzen ditu, eta ezin bestekoa da enplegu berriak sortzea.**
- **2018an, programak 85 milioi euroko guztizko inbertsioa eskuratu zuen 55 proiektutan eta, haren bitartez, 752 enplegu berri sortu ziren.**
- **Industriari lotutako industria eta zerbitzuak hazkunde bete-betean dauden honetan, Gobernuak lehenetsi egin du produktu berriak eskain ditzaketen goi-teknologiako arloak finantzatzea.**

Eusko Jaurlaritzak 28 milioi euro jarriko ditu teknologia-oinarria duten edo/eta berritzaileak diren ETEen sorrera eta garapenera bideratutako GAUZATU-Industria Programa finantzatzeko.

Industria finantzatzeko programa bat da, ibilbide zabalekoa, ETEentzako aurrerakin itzulgarriak errazten dituen; horretarako, ETEok inbertsio adierazgarriak egin, enplegu berria sortu, duten enpleguari eutsi eta balioa gehitu zein lehiakortasuna hobetzen duten proiektu berritzaileak landu behar dituzte.

2018an, programa horrek geldiarazi egin zuen teknologia- eta berrikuntza-arloko 55 industria-proiekturen bidezko 85 milioi euroko guztizko inbertsioa; proiektuen bitartez, 754 enplegu berri sortu ziren.

Eszenategi honetan, Gobernuaren babesak ezin bestekoa izaten jarraitzen du gure lurraldearen industria-garapenerako, baldintza egokiak sortuz enpresek inberti dezaten, merkatuan lehia daitezen eta aberastasuna zein enplegua sor ditzaten.

Horretarako, ezin bestekoa da enpresa bideragarriari eta, bereziki, ETEei, finantzaketa jasotzeko aukera erraztea; izan ere, faktore bakarra ez den arren, baldintzatu egiten du haien lehiakortasuna hobetzeko ekintzak abian jarri eta hazteko aukera.

Industria-sistemaren lehiakortasuna enpresetan egiten diren apustu teknologiko eta berritzaileei esker heltzen da.

Finantzaketa hori ondorengoetara bideratuko da: besteak beste, goi-teknologiako eta I+G+b inbertsio maila handiko industria-arloetan funtzionatzen duten enpresak, eta teknologia-ezagutza produktu edo prozesu berriak bihurtzeko gai direnak.

Esleituko diren laguntza itzulgarriak diruz lagunduko den inbertsioaren % 35eraino hel daitezke, baina ezin da 1.500.000 euroko kopurua gainditu.

Programa hau 2019. Ekitaldirako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan kokatzen da, eta bat egiten du XI. Legegintzaldiko Euskadi 2020 Gobernu Programarekin. Zehazki, 1. **ardatz estrategikoan** biltzen diren helburuei lotzen zaie: “*Hazkunde sendoa, enplegu gehiagorekin eta hoberekin*”, eta haren barnean kokatzen da “*Ezagutzaren ekonomian lehiakorragoa den industria*”.

Programaren **helburu estrategikoa** da Teknologia Oinarriko edo/eta Berritzaileak diren ETEen sorrera eta garapena bultzatzea, **etorkizuneko lehiakortasun-estrategia gisa**:

- Enplegua sortzen duen inbertsioan lagunduz
- Enpresen hazkundera hauspotuz
- Finantzaketa eskuratu ahal izatea erraztuz

Laburbilduz, bilatzen du ETE horien gaitasun eta beharrianetara egokitzen den laguntza-oinarri bat ezartzea, berrikuntza teknologikoa eta ez-teknologikoa eta dibertsifikazioa sustatuko dituen, aukera-arlo berriei begira.

Programa **ondorengo arlorantzuzentzen** da:

- Erauzketako, produkzioko, eraldaketako eta haiei uztartutako zerbitzu teknikoetako (prozesu-produktuei lotutako) **ETEak**, Teknologia Oinarridunak edo/eta Berritzaileak direnean.
- **Enpresa-taldeak**, non eskaera aurkeztzen duen enpresak akzioen % 100eko partaidetza duen taldeko beste enpresetan.

Era horretan, ondorengo eragina bilatzen da:

- Produktu berriak garatzea
- Merkatu berrietan produktu tradizionalak sartzea

Produktibitatea areagotuko duten fabrikazio-prozesuen hobekuntza teknologikoa

### **Dokumentazioa aurkeztu**

Eskaerak eta haren dokumentazioa, errekerimenduak eta gainerako kudeaketak, bitarteko elektriko bidez aurkeztuko dira ondorengo Internet helbidean: [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

Eskaerak egiteko epea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Agindu hau argitaratu eta hurrengo egunean hasi eta 2019ko irailaren 30ean amaitzen da, edo eskueran dauden funtsak agortzen direnean.

### **Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak**

**EUSKO JAURLARITZAK 12 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU EGOERA AHULEKO ESQUALDEETAN ETA LANGABEZIA TASA HANDIENA DUTEN UDALERRIETAN INDUSTRIA-ENPLEGUA SORTZEKO**

- **Indartu 2019k zuzkidura gehigarri bat aurreikusten du, egoera ahuleko eskualdeetarako talka-planean adostua; beraz, 8 milioitik 12ra handitu da**
- **laz, 27 enpresak programa honen dirulaguntzak jaso zituzten (13 Gipuzkoatik eta 14 Bizkaitik), eta 421 lanpostu sortu ziren**

Eusko Jaurlaritzak gaur onartu du Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren INDARTU 2019 programaren 12 milioi euroko finantzaketa; hartara, Talka Planean egoera ahuleko eskualdeetarako adostutako zuzkidura gehigarria betetzen du.

Indartu programaren helburua da enpresei produkzio-inbertsioa egin dezaten laguntzea, era horretan hobe lehiatu eta ekonomia-garapen hobea izan dezaten (Nerbioi) Itsasadarreko Ezkerraldean eta Oartzualdean. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa baino % 20az gorako langabezia tasa duten udalerrriak ere sartzen dira, orain arte eraginpean izan ez diren udalerrriak kontuan hartuz eta, lehendabiziko aldiz sartzen dira: Laudio, Nabaridas, Erribera Beitia eta Ubide.

Halaber, joan den urtean laguntzak eskatzeko beharra izan zuten hogeit hamar inguruk aurten gaingitu dute behar-egoera hori.

INDARTU 2018 laguntzak jaso zituzten 27 enpresek 421 enplegu berri sortu zituzten (147 Gipuzkoan eta 274 Bizkaian); era horretan, industria-berreskurapena sendotzen laguntzeko eta aberastasuna sortzen enpresa-ehundurari babesteko programaren helburua betetzen da.

**Bereziki kaltetutako eskualdeetarako itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak**

Itzuli beharrik gabeko dirulaguntza forma duten laguntzak dira, enplegua sortzen duten industria-inbertsioak, enpresa berriek eta dagoeneko badauden enpresek egindakoak, bultzatzeko.

Laguntza jaso dezakeen inbertsioaren % 25erainoko diru-laguntza emango da, eta gehienezko diru-laguntza 3 milioi euro izango da.

INDARTU Programaren diru-laguntzak jaso ahal izateko, Enpresa Handiek eta Enpresa Ertain eta Txikiak (ETEEK) industriari erantsitako industria- eta zerbitzu-enpresak izatearen ezaugarria bete behar dute.

Gipuzkoako Oartzualdea eta Bizkaiko Ezkerraldeko eskualdeetako herriez gain, aurten egoera ahuleko eskualde gisa katalogatuta egon gabe Euskadiko batez bestekoa baino % 20tik gorako langabezia tasa duten udalerrietan inbertitzen duten enpresak ere onartuko dira.

## Industrializazio Plana 2017-2020

Dirulaguntza hauek Industrializazio Plana 2017-2020an kokatzen dira, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak bultzatuta. Industrializazio Plana 2017-2020ak industria-garapenaren eta gizarte-desparekotasuna gutxitzearen aldeko apustu irmotzat hartzen du aberastasun-sorrera. Alde horretatik, bitarteko eta programa egokiak egituratzen ditu enpresa-inbertsioak hauspotzeko eta enplegu-aukera berriak sustatu eta sortzen dituzten enpresei laguntza integral bat emateko. Gainera, diskriminazio positiboa ezartzen du ondorengoak bultzatzeko: (Nerbioi) Itsasadarreko Ezkerraldean eta Oiartzualdean kokatutako inbertsioak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko urteko batez bestekoa baino % 20az gorako langabezia tasa duten udalerrietan estrategikotzat eta lehenetsitatzeko inbertsioak.

Aipatutako plan hori aplikatuz, INDARTU Programak:

- Enpresa berriek zein existitzen direnek egiten duten produkzioarako inbertsioa bultzatzen du, produktua eraldatzeko prozesuko hobekuntzei, ahalmenen hazkunderari eta ekintza berrien garapenari zuzenean lotutako inbertsioak.
- Langabeziaren egoera larrien sufritzen duten eremuak ditu jomuga.
- Inbertsioak behar bezala finantzatuak izatearen beharra nabarmentzen du, eta eskatzen du hala enpresa berriek nola dagoeneko existitzen direnek, zati batean gutxienez, hasieran, inbertsioari Berezko Baliabideen bidez aurre egin ahal izatea: guztira laguntza jaso dezaketen inbertsioen % 25, harentzako laguntza publikoak kenduta.
- Gehienez hiru milioi euroko diru-laguntza ezartzen du enpresa bakoitzeko, laguntza jaso dezakeen inbertsioaren arabera, sortuko duen enplegu kopurua edozein dela ere.

## Erakunde eta eremu onuradunak

INDARTU Programako diru-laguntzak eskuratu ahal izateko, Enpresa Handiek eta Txikiek eta Ertainek (ETEek) erauzketa, eraldaketa, produkzio eta haiei lotutako zerbitzu tekniko aurreratuetako enpresak izatearen ezaugarria beteko dute; izan daitezke ere zerbitzu logistikoetako enpresak, kanpoan utzita garraioa, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko (Nerbioi) Itsasadarreko Ezkerraldean edo Oiartzualdean kokatzen badira. EAeko urteko batez bestekoa baino % 20az gorako langabezia tasa duten udalerrietan, bakarrik Enpresa Txiki eta Ertainek (ETEek) egiten dituzten inbertsioak lagunduko dira diruz.

INDARTU laguntzak eskatzeko orduan, ondorengoak hartzen dira (Nerbioi) Itsasadarreko Ezkerraldean eta Oiartzualdean:

**Oiartzualdea (Gipuzkoa)**, ondorengo udalerriek osatua: Errenteria, Pasaia, Lezo, Oiartzun, Hondarribia, Irun eta Hernani.

**(Nerbioi) Itsasadarra (Bizkaia)**, ondorengo udalerriek osatua: Sestao, Urtuella, Valle de Trápaga-Trapagaran, Abanto, Muskiz, Zierbana, Portugalete, Santurtzi, Barakaldo, Alonsotegi eta Erandio.

Halaber, deialdi honetan ezarritako ondorioetarako, gainerako udalerritzat hartuko dira, egoera ahuleko eskualdeetan egon gabe Euskal Autonomia Erkidegoko urteko langabezia tasa baino % 20az gora dutenak, EUSTATEk ezarri eta eskueran jarritako azken kalkuluaren arabera:

**a) Araba:** Agurain, Berantevilla, Labastida, Laudio, Nabaridas, Oion, Erribera Beitia, eta Zanbrana.

**b) Bizkaia:** Artzentales, Balmaseda, Basauri, Bermeo, Bilbao, Busturia, Elantxobe, Gueñes, Karrantza Harana, Lanestosa, Orduña, Sukarrieta, Turtzioz, Ubide eta Zalla.

**c) Gipuzkoa:** Soraluze-Placencia de las Armas.

### **Dokumentazioa aurkeztu**

Eskaerak eta haren dokumentazioa, errekerimenduak eta gainerako kudeaketak, bitarteko elektrikoen bidez aurkeztuko dira ondorengo Internet helbidean: [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

Eskaerak egiteko epea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Agindu hau argitaratu eta hurrengo egunean hasi eta 2019ko irailaren 30ean amaitzen da, edo eskueran dauden funtsak agortzen direnean.



## Enplegua eta Gizarte Politikak

**EUSKO JAURLARITZAK 35 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU LAN- ETA FAMILIA-BIZITZA UZTARTZEKO LAGUNTZETARA, ETA FAMILIEK 2018AN BAINO % 5 GEHIAGO JASOKO DUTE**

Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak gaur onetsi du 34.985.774 euro bideratzea 2019an Euskadiko langileen familia- eta lan-bizitza uztartzeko laguntzetara. Laguntza horiek hiru lerro edo hiru hartzaile-mota dituzte.

Artolazabal sailburuaren hitzen arabera, “batetik, dirulaguntzak ematen zaizkie seme-alabak zaintzeko eszedentzia-egoeran edo lanaldi-murrizketan dauden langileei. Lehen lerro hori da garrantzitsuena eta horretara 33.170.674,00 euro bideratuko dira”.

Beatriz Artolazabalek honako hau esan du: “bigarren lerroa 1.415.100,00 euro bideratuko dira eta, horren bidez, mendekotasun-egoeran edo osasun-arloko muturreko larritasun-egoeran dauden familiartekoak zaintzeko eszedentzia-egoeran edo lanaldi-murrizketan dauden langileei lagundu nahi zaie. Hirugarren lerroa seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzekeo laguntzetara bideratzen da. Lerro horretara 400.000 euro bideratuko dira”.

“Seme-alaben zaintzan norberaren bizitza, familia eta lana uztartzeko eta erantzunkidetasunerako bide ematea da 2018-2022rako EAeko Familiei Laguntza emateko Erakundearen arteko IV. Planaren ardatz estrategikoetako bat”, esan du sailburuak. Iaz, Eusko Jaurlaritzako Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak laguntza-mota horren eskabideetan % 12,70 gehiago jaso zuen.

### **% 5eko igoera laguntzetan**

2018aren aldean, 2019an laguntza horiek jasoten dituztenek % 5eko igoera izango dute. Motiboa da, aurrekontua luzatu bada ere, aurtengo otsailaren 14an Eusko Legebiltzarrak 2018an laguntzen zenbatekoan % 5eko murrizketa ezarri zuen 6. xedapen gehigarria indarpebetzea erabaki zuela.

Horrela, familia- eta lan-bizitza uztartzeko laguntzetarako aurreikusten diren zenbatekoak honako koadro honetan ageri direnak izango dira:

Dirulaguntza jaso dezakeen jarduketa		EE atalaseak	Zenbatekoa / % 2015	
Seme-alaba zaintzea (4)	Eszedentzia (1)	EE =<20.000,00 €	3.500,00	
		EE > 20.000,00 €	2.942,00	
	Murrizketa (1)	=>% 45	EE =<20.000,00 €	2.800,00
			EE > 20.000,00 €	2.354,00
		=>% 40 eta <% 45	EE =<20.000,00 €	2.500,00
			EE > 20.000,00 €	2.140,00
=>% 33 eta <% 40	EE =<20.000,00 €	2.200,00		
	EE > 20.000,00 €	1.819,00		
Mendekotasun-egoeran dauden familiartekoak zaintzea (4)	Eszedentzia (1)	EE =<20.000,00 €	3.500,00	
		EE > 20.000,00 €	2.942,00	
	Murrizketa (1)	=>% 45	EE =<20.000,00 €	2.800,00
			EE > 20.000,00 €	2.354,00
		=>% 40 eta <% 45	EE =<20.000,00 €	2.500,00
			EE > 20.000,00 €	2.140,00
=>% 33 eta <% 40	EE =<20.000,00 €	2.200,00		
	EE > 20.000,00 €	1.819,00		
Dirulaguntza jaso dezakeen jarduketa		EE atalaseak	Zenbatekoa / % 2015	
Osasun-arloko muturreko larritasun-egoeran dauden familiartekoak zaintzea (4)	Eszedentzia (2)	EE =<20.000,00 €	863,00	
		EE > 20.000,00 €	725,00	
	Murrizketa (3)	=>% 45	EE =<20.000,00 €	1.380,00
			EE > 20.000,00 €	1.161,00
		=>% 40 eta <% 45	EE =<20.000,00 €	1.232,00
			EE > 20.000,00 €	1.055,00
=>% 33 eta <% 40	EE =<20.000,00 €	1.085,00		
	EE > 20.000,00 €	897,00		
Zaintzaileak kontratatzea		EE =<20.000 €	100,00%	
		EE >20.000 €	75,00%	

## Enplegua eta Gizarte Politikak

### EUSKO JAURLARITZAK 34,5 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU SEME-ALABAK DITUZTEN FAMILIENTZAKO LAGUNTZA EKONOMIKOEN PROGRAMA FINANTZATZERA

Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak erabaki du seme-alabak kargura dituzten familientzako laguntza ekonomikoen programara 34.549.000 euro bideratzea. Artolazabal sailburuak gaur gogorarazi du seme-alabak dituzten familientzako laguntzak “aldian behingoak ez diren prestazioak direla, ekonomikoak, familia-unitateko aitari edo amari bideratuak, kargura dituzten seme-alabak zaintzeko eta horien mantentzeko behar ekonomikoei erantzuten laguntzeko”. Horiek eskubide subjektibo gisa jaso dira, Familientzako Laguntzei buruzko Legearen (abenduaren 12ko 13/2008) 8. artikulua arabera.

Laguntza horiek 400 €, 500 € edo 900 €-koak dira, familia-errenta estandarizatuaren arabera, eta hiru laguntza-mota daude:

- Kargura dagoen seme edo alaba bakoitzeko (\*aurreko taulan ageri da)
- Erditze anizkoitzagatik edo adopzio anizkoitzagatik (2 edo ume gehiagokoa): laguntza hau behin baino ez da ordaintzen, eta metagarria da, ardurapeko seme edo alabarengatik laguntzei dagokienez.
- Nazioarteko adopzioagatik (atzerriko herrialdeetan adoptatutako semea edo alaba): laguntza hau behin baino ez da ordaintzen, eta metagarria da, ardurapeko seme edo alabarengatik laguntzei dagokienez.

SEME EDO ALABA KOPURUA	ORDAINKETA KOPURUA	NOIZ/EGOERA
Lehenengo semeagatik edo alabagatik	<b>1 ordainketa</b> Jaiotzean: <b>hasierako laguntza</b>	Jaiotzagatik  Adopzioagatik
Bigarren semeagatik edo alabagatik	<b>3 ordainketa:</b> Jaiotzean: hasierako laguntza 1 eta 2 urte betetzean: <b>mantenurako laguntza</b>	Adopzioaren aurreko bizikidetzarako zaintzaren eskuordetzeagatik
Hirugarren semeagatik edo alabagatik eta hurrengoengatik	<b>7 ordainketa:</b> Jaiotzean: hasierako laguntza 1, 2, 3, 4, 5 eta 6 urte betetzean: <b>mantenurako laguntza</b>	Tutoretzagatik

Laguntza horiek 2018-2022rako EAEko Familiei Laguntza emateko Erakundearen arteko IV. Planarekin lotzen dira; “izan ere, planak pertsonen beren familia-proiektuarekin hasi ahal izateko eta nahi duten beste seme-alaba izateko zailtasunak dakartzaten oztopoekin pixkanaka amaitzea du helburu”, esan du Artolazabalek.

### Dagoeneko aplika daitezkeen hobekuntzak

2018ko uztailaren 30ean, Gobernu Kontseiluak 121/2018 Dekretua onetsi zuen; horren bidez, aldatu egiten da kargura seme-alabak dituzten familiei laguntzeko dirulaguntzei buruzko aurreko dekretua. Araua dagoeneko indarrean dago, pasa den abuztuaren 1etik; horrela, Familiei Laguntza emateko Erakundearen artek IV. Planean jasotako hobekuntza-konpromisoa gauzatu zen eta, horretarako, honako neurri hauek sartu:

- Bigarren semeagatiko edo alabagatiko laguntzak handitzea; bi urterokoak izan beharrean (bat jaiotza-urtean eta beste bat umeak urtebete betetzen duenean) hirukoak izatea (aurrekoez gainera, beste urteroko bat gehiago, umeak bi urte betetzen dituen urtean).
- Semearen edo alabaren kontzeptua zabaltzea, familia-etxebizitzan bizi diren eta ekonomikoki aitaren eta/edo amaren mendekoak diren adinez nagusiak eta 25 urtetik beherakoak sartzeko.
- Adopzioaren, adopzioaren aurreko elkarbizitzarako zaintzaren delegazioaren eta tutoretzaren kasuetan, adopzioa edo adopzioaren aurreko elkarbizitzarako zaintzaren delegazioa formalizatzen den urtea ulertuko da jaiotzaren baliokidea dela; horrela, mantentzeko laguntza guztiak jasotzeko eskubidea sortuko da, seme edo alaba horrek familia-unitateko seme eta alaben artean betetzen duen hurrenkeraren arabera, jaiotza-dataren arabera antolatuta eta 18 urteko adina baino ez dela izango adin-muga.
- Aldaketa adopzioa edo tutoretza oinarri duten hasierako eskabideak aurkezteko kontaketa hasteko egunean; izan ere, orain, adopzioaren edo tutoretzaren eraketa dagokion erregistro zibileko bulegoan inskribatu eta hurrengo eguna izango da.

Semeak eta alabak dituzten familientzako laguntza-sistema, mota, zenbateko eta urterokoak direla eta, orain honela banatzen da:

Laguntza-mota	Urterokoak	Adina	Errenta Estandarizatua	Zenbatekoa		
A. Lehen semea edo alaba	1	Jaio. edo adop-eguna	EE=<20.000,00 €	900,00€		
B. Bigarren semea edo alaba	3	Jaio. edo adop-eguna				
		Urtebete Bi urte	EE>20.000,00 eta =<30.000,00 €	500,00€		
C. Hirugarren semea edo alaba	7	Jaio. edo adop-eguna				
		Urtebete				
		Bi urte				
		Hiru urte			EE>30.000,00 €	400,00€
		Lau urte				
		Bost urte				
Sei urte						
D. Erditze edo adop. anizkoitz nazionala	1	Jaio. edo adop-eguna (metagarria A, B eta Crekin)	EE=<20.000,00 €	(ume kop. - 1)* 2.000,00 * 2,0		
			EE>20.000,00 eta =<30.000,00 €	(ume kop. - 1)* 2.000,00 * 1,5		
			EE>30.000,00 €	(ume kop. - 1)* 2.000,00 * 1,0		

E. Nazioarteko adop. soila	1	Adop. urtea (metagarria A, B eta Crekin)	EE= $\leq$ 20.000,00 €	2.000,00 * 2,0
			EE>20.000,00 eta = $\leq$ 30.000,00 €	2.000,00 * 1,5
			EE>30.000,00 €	2.000,00 * 1,0
F. Nazioarteko adop.anizkoitza	1	Adop. urtea (metagarria A, B eta Crekin)	EE= $\leq$ 20.000,00 €	2.000,00 + [1.500,00 * (ume kop. - 1)] * 2,0
			EE>20.000,00 eta = $\leq$ 30.000,00 €	2.000,00 + [1.500,00 * (ume kop. - 1)] * 1,5
			EE>30.000,00 €	2.000,00 + [1.500,00 * (ume kop. - 1)] * 1,0

## Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

### **ORDIZIAKO UDALAREKIN HITZARMENA, FLOREAGAN ALOKAIRURAKO BABESEKO 36 ETXEBIZITZA ERAIKITZEKO**

Gobernu Kontseiluak onartu egin du Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak eta Ordiziako Udalak adostutako hitzarmena. Horren bidez, Gipuzkoako udalerriko Floreaga zonaldean alokairurako babes publikoko 36 etxebizitza eraikiko dira.

Hala, 90eko hamarkadako proiektua berriz hartu da; haren bidez, zonalde berean babes publikoko 27 etxebizitza eraikitzea aurreikusten zen. Hitzarmen berri horri esker, etxebizitza kopurua areagotuko da; hiru eraikin eraikiko dira, 36 pisu guztira, 12 bideratuko dira alokairurako etxebizitza sozialera, eta 24 alokairurako babes ofizialeko etxebizitzetara.

Ordiziako Udalak lursaila doan emateko eta adostutako eraikuntza-lanak egiteko hirigintza-plangintzan beharrezkoak diren aldaketak egiteko konpromisoa hartu du. Bere aldetik, Etxebizitza Sailak eraikuntza eta urbanizazio proiektuak egiteko betebeharra eta obrak egikaritzea bere gain hartu ditu.

Bestalde, Gobernu Kontseiluak 2009an Zanbranako (Arabako) Udalarekin adostutako hitzarmenaren ebazpena baimendu du, babes ofizialeko etxebizitza sustatzeko. Hitzarmen horren garapena geldiarazi egin zen, etxebizitza-krisia dela eta babestutako etxebizitza-eskaria nabarmen murriztu baitzen, orokorrean, eta aipatu udalerrian, zehazki. Eskari urritasun hori denboran mantendu da Arabako udalerrian. Gainera, Zanbranako Udalak berak eskatu zuen 2018an hitzarmena bertan behera uztea, Araban landa-etxebizitzaren ezaugarriak eta orokorrean babeseko etxebizitzak sustatzeko ezarritako irizpideak bat ez zetozela iritzita. Hori dela eta, eta Zanbranako Udalak hala adostuta, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak hitzarmena iraungitzea eskatu du.

## Ogasun eta Ekonomia

**JAURLARITZAK 76,18 MILIOI EURO BIDERATU DITU EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK, INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA, TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO ETA KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILETARA, 2019RAKO LUZATUTAKO AURREKONTUAN SARTU EZ ZIREN ZENBAIT JARDUKETARI EKITEKO**

- Horrez gain, 2020n, 2021en eta 2022n 32 milioi euroko konpromiso-kredituak sortzea baimendu da. Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailak izango dira hartzaileak

Kreditu Globala 76.185.553 eurotan handitzea onartu du gaur Gobernu Kontseiluak. Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailak izango dira onuradunak eta xedea da 2019rako luzatutako aurrekontuan sartu ez ziren jarduketa ezberdinak finantzatzea.

2018ko ekitaldiko aurrekontuak 2019rako luzatu zirenez, luzatutako beren aurrekontuetan zuzkidura nahikorik ez duten jarduketa batzuk finantzatzeko beharra dute EAEko Administrazioiko Sail ezberdinek.

Saila	2019
Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak	41.609.659
Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza	24.295.928
Turismo, Merkataritza eta Kontsumoa	3.070.000
Kultura eta Hizkuntza Politika	7.209.966
<b>GUZTIRA</b>	<b>76.185.553</b>

Gobernu Kontseiluak 2020ko, 2021eko eta 2022ko ekitaldietan 32.056.000 euroko konpromiso-kredituak sortzea baimendu du ere:

Saila	2020ko KK	2021eko KK	2022ko KK
Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak	14.556.000		
Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza	7.500.000	7.500.000	2.500.000
<b>GUZTIRA</b>	<b>22.056.000</b>	<b>7.500.000</b>	<b>2.500.000</b>

## Hezkuntza

### **770.000 EURO LANBIDE HEZIKETAN BERRIKUNTZA ETA EKINTZAILTZA PROIEKTUETARAKO**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran Agindu bat onartu du Hezkuntza sailburuak proposatuta; aipaturako Aginduaren bidez, 2019-2020 ikasturtean, Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxeetan garatu beharreko berrikuntza eta ekintzailtza-proiektuak egiteko diru-laguntzak deitzen dira. Proiektuok, Lanbide Heziketako V. Planak definitzen dituen ildo estrategikoekin bat etorri beharko dute.

770.000 euroko diru kopuruarekin, deialdi honen xedea da Lanbide Heziketako zentroetan berrikuntza aplikatu eta ekintzaileko proiektuak egin ahal izan ditzaten, irakasleak erabat edo partez liberatzeko dirulaguntzak ematea. Aipaturiko proiektu horiek 2019-2020 ikasturtean gauzatu beharko dira. Proiektuok garatzerakoan jaso den ezagutza hori ikasleenganaino iristea ere helburu izango da, bai eta Euskadiko gainerako Lanbide Heziketako ikastetxeetara eta enpresetara iristea ere, Enpresa Txiki eta Ertainetara bereziki.

Lanbide Heziketako V. Euskal Planak (joan zen otsailean Gobernu Kontseiluan onartu zenak) jasotzen dituen eremu estrategikoen artean, honako hauek daude: 4.0 testuinguruko ikaskuntza; berrikuntza aplikatua; elkarlan adimentsua; garapen jasangarria; nazioartekotzea; konplexutasunaren kudeaketa; edo Lanbide Heziketako ikastetxeen bilakaera, erakunde adimentsuetarantz.

Euskadiko itunpeko ikastetxe pribatuek eskatu ahal izango dituzte diru-laguntza horiek, baldin eta 2019-2020 ikasturtean erdi eta goi-mailako Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloak itunduta badituzte.

Deialdi hau bat dator lanbide-heziketako ikastetxeetan ingurune estrategikoak eta espezializazio-arloak ezartzeko helburuarekin. Ingurune eta arlo horien bidez, ikasleen enpleagagarritasuna hobetuko da, eta, gainera, EAEko enpresei lehia-abantailak emango dizkie, bereziki Enpresa Txiki eta Ertainei.



## Kultura eta Hizkuntza Politika

### EUSKO JAURLARITZAK DONOSTIAKO ALDE ZAHARRA ETA KULTURA ONDASUN KALIFIKATU DUTE, MONUMENTU MULTZO KATEGORIAN

- **Babes dekretuan jaso denez, "arkitekturaren ikuspegitik, hirigintzarenetik eta historiaren ikuspuntutik" multzo honek balio aipagarriak ditu, eta arkitektura erresidentzialaren diseinu harmoniatsua nabarmentzen da**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak Donostiako Alde Zaharra eta kaia Kultura Ondasun kalifikatzeko dekretua onartu du gaur, Monumentu Multzo kategorian. Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eta Donostiako Udalak adostu zuten gaur onartutako dokumentua, eta orain urtebete aurkeztu zuten (2018ko apirilaren 11an). Gaurko onarpenaren ostean, espedienteak alegazio epea gainditu ondoren, inguru honen babesa gauzatzen da.

Dekretuak jaso duenez, "arkitekturaren ikuspegitik, hirigintzarenetik eta historiaren ikuspuntutik multzo honek balio batzuk ditu. Kalearen trazan eta multzoaren homogeneotasunean islatzen da hori, eta azken ezaugarri honek balioa ematen die eraikinei, horietako batzuk banaka apalagoak izan ahal badira ere. Eraikuntza bikainen kalitate arkitektonikoak, ikuskera neoklasikoa duen arkitektura erresidentzialaren diseinu harmoniatsuak eta 1813 baino lehenagoko eraikinek ere kontuan hartu beharreko balioak dituzte".

Dekretuak kalifikazio honen helburu den espazioa Monumentu Multzo gisa mugatzen du. Lau angeluko perimetro horri hiriko kaia gehitzen zaio, eta honako muga hauek ditu: Argazkilari elkarte dagoen eraikineko (San Juan kalea) hegoaldeko ertzetik Boulevarderaino; ingurune horretatik (San Juan-Boulevard ertza) lerro zuzenean kaltetara; itsasotik hurbilen dagoen inguruneak muga gisa kaiak ditu, Kaiko pasealekuaren hasieraraino (lonja berriaren ondoan), Kofradia, hego-mendebaldeko kai-muturra eta Aquarium osoa; eta, azkenik, perimetroa itxi egiten da, Abadeen kaia, Urgull mendiko eskolak, zaindariaren etxea eta San Telmo Museoa barne.

#### Alde Zaharra eta kaia

Ondasun kalifikatu gisa babestu beharreko espazioa mugatzeko orduan, kultura-intereseko balioak hartu dira kontuan, Alde Zaharreko kontzepzio neoklasikoarekiko koherentzia, eta, era berean, kaiak Erdi Aroko hiriaren eta mendeetan zehar bertako biztanleen oinarri ekonomiko gisa duen interes nabarmena balioetsi da. Alde Zaharra eta kaia morfologikoki desberdinak badira ere, erabaki da batera kalifikatzea, elementu osagarriak partekatzen dituztelako eta elementu komun bidez daudelako konektatuta.

Alde Zaharraren eboluzio historikotik abiatzen da dekretua, baina "aldi berean, egungo eraketa, ezaugarriak eta berezitasunak ditu kontuan". Babes-espediente honen helburua Alde Zaharraren morfologia kontserbatzea eta, era berean, ingurune horretan bizi diren 4.000 biztanleen beharren kudeaketa malgutzea da; horien bien arteko oreka eskaintzea, alegia. Horrela, babes horrek segurtasun juridiko handiagoa eskainiko die garatzen diren jarduketei eta,aldi berean, babesaren ikuspuntutik eta herritarren erabileraren ikuspuntutik, hirigintza-jarduketa bateratua egiteko aukera emango du.

Kultura Ondarea Babesteko Eusko Jaurlaritzaren 7/1990 Legearen babesean gauzatu da Monumentu Multzoaren adierazpena. Horrela, garatzen diren hirigintza-plangintzak, gerora, kalifikazioan ezarritako araubidera egokitu beharko dira eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren txostena izan beharko dute. Babesak, halaber, espazio publikoetan gauzatzen diren jarduketak guztiek horien hiri-izaera eta -egitura sustatuko dutela ezartzen du, eta hiri-altzariak multzoaren ingurumen-izaerarekin integratu eta bateratuko dituztela. Babes-espeditenteak arautzen ditu birsortzearen, eraispenaren, erabileraren edo jardueraren gaineko aspektu guztiak. Babes honek ez du baimenduko egungo lerrokatzeen aldaketa, izan ere, hiri-bilbea da Monumentu-Multzo baten ezaugarri nagusienetako bat. Alegazio epean onartu den alegazio aipagarriena da igogailuak jartzeko aukera emango dela, baldin eta partzelen forma eta tamaina mantentzen bada.

Alde Zaharra Monumentu Multzo izendatzeko dekretuak babes-maila ezberdinak ezartzen ditu, balio arkitektonikoaren arabera. Horiek horrela, babes-maila arruntetik babes berezia izango duten ondasunak arte bereizi egiten dira. Eta guztira sei babes-maila ezarri dira: berezia, babes-ertaina, oinarrizkoa, morfologikoa, hiri-guneak eta diskordantzia (azken honek babestuko ditu inguruko eraikinen ezaugarriekin bat egiteko betebeharra betetzen ez dituzten eraikinak).

Babes-berezia izango dutenen artean, besteak beste, San Bizente eta Santa Maria elizak, San Telmo, Santa Teresa edo liburutegia daude. Babes-ertaina dutenen artean segidakoak daude: Konstituzio plazako etxe-multzoa, Antzoki Zaharra, Kaiko Ermita, Trinitate plaza, Aquarium-a edo Itsas Museoa. Azkenik, eraikin gehienek, alegia, etxebizitzak hartzen dituztenek, oinarrizko babesa izango dute, izan ere, ulertzen da arkitektura, historia eta kultura kontuan izanda ez dutela aipatutakoen hainbesteko baliorik, baina interesgarria dela banaka babestea ondare-multzo baten parte direlako.

Dekretuak, halaber, honakoa dio: lehentasuna da kaleak oinezkoentzat izatea eta galtzadan harrizko zola mantentzea - gelditzen diren tokietan -. Era berean, azpimarratzen du plazetan dauden eraikinen, harresien, biaduktu iturrien eta monumentuen, zuhaitzen eta lorategien garrantzia.

Alde Zaharra multzo historiko artistikoa izendatzeko espedientea 1987 urteaz geroztik hasita zegoen. Donostiako Alde Zaharraren eta kaiaren babesarekin Eusko Jaurlaritzaren eta Donostiako Udalaren helburu historikoa betetzen da. Azken urteetan Eusko Jaurlaritzaren eta Donostiako Udalaren Hirigintza departamentuaren lanari esker ahalbidetu dekretuaren onarpena. Luis Sesé eta Maria Escalada arkitektoen laguntza ere ezinbestekoa izan da aurrera egiteko espedientearekin.

Alde Zaharrak bere jatorria du, 1813ko sutea eta suntsipenaren ondorioz planteatutako birsortzean. Ugartemendia arkitektoak hiriaren diseinu berria egin zuen eta eraikinen lerrokatzea egin zuen, hain zuzen ere, Alde Zaharraren oinarria den lerrokatzea. Babes espedienteak gogorarazten du, egungo konfigurazioan eraikinek Ugartemendiaren ordenantzei erantzuten dieten hainbat elementu mantentzen dituztelarik. Gipuzkoak sortu zuen lehen hiribildua izan zen Donostia, eta bere jatorrian dago Urgull Mendiaren azpian zegoen kokalekuak sortutako hiri-egituraren eboluzioa, ibilbide historikoagatik, ekonomikoagatik eta natura faktorerengatik baldintzatutakoa.

## Desarrollo Económico e Infraestructuras

### **EL GOBIERNO AUTORIZA CRÉDITOS DE 55 MILLONES PARA EL INTERCAMBIADOR DE RIBERAS DE LOIOLA Y LA EXTENSIÓN DEL BUS ELÉCTRICO INTELIGENTE BEI**

El Gobierno Vasco ha autorizado la creación de créditos de compromiso destinados a mejorar y hacer posibles proyectos de Infraestructura y gestión del Transporte Ferroviario en Euskadi por un importe total de 54.650.000 euros. Estas dotaciones se distribuyen en 8.050.000, 26.800.000 y 19.800.000 de euros para los ejercicios 2020, 2021 y 2022, conforme al siguiente detalle:

	<b>2020</b>	<b>2021</b>	<b>2022</b>	<b>TOTAL</b>
Convenio financiación BEI Donostia	4.400.000	13.000.000	8.000.000	25.400.000
Convenio financiación BEI Leioa	2.950.000	8.500.000	8.500.000	19.950.000
Convenio intercambiador Riberas de Loiola	700.000	5.300.000	3.300.000	9.300.000
<b>TOTAL</b>	<b>8.050.000</b>	<b>26.800.000</b>	<b>19.800.000</b>	<b>54.650.000</b>

A propuesta del departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras el Consejo de hoy ha autorizado incrementar el estado de créditos de compromiso, aumentando el importe de los autorizados para cuatro temas relevantes entre los que destacan las dotaciones que permitirán firmar los convenios y llevar a cabo los proyectos del intercambiador de Riberas de Loiola en Donostia y la extensión del Bus Eléctrico Inteligente (BEI) en otros municipios como Donostia y Leioa.

#### **Conexión de Euskotren y Renfe en Loiola**

En el acuerdo alcanzado hoy se dedican 9.600.000 euros para el convenio de financiación previsto entre la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco la Administración General del Estado ADIF, y la Diputación Foral de Gipuzkoa para la implantación del intercambiador en Riberas de Loiola.

Se trata de un proyecto estratégico que posibilitará conectar las 2 principales líneas ferroviarias que vertebran en territorio de Gipuzkoa: la red de ETS explotada por Euskotren (con más de 12 millones de personas usuarias) y la red de ADIF explotada por Renfe (con 7 millones de personas usuarias). Se creará una nueva parada que tendrá una función de intercambiador entre ambas líneas, donde las personas usuarias podrán hacer un transbordo sin tener que salir de la propia estación.

La distribución del coste del convenio, por anualidades, quedaría de la siguiente manera, no disponiendo en el presupuesto prorrogado para el ejercicio 2019 de los créditos de compromisos contemplados:

2019	2020	2021	2022	TOTAL
300.000	700.000	5.300.000	3.300.000	9.600.000

### **Extensión del BEI a Donostia y Leioa**

